

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta EAEk uztaileko bigarren hamabostaldian EITB Nafarroan ikus-entzun ahal izateko hitzarmen bat sinatuko dute

Nasertic enpresa publikoa eta EITB irtenbide tekniko egokiena zehaztuko duen azterketa amaitzen ari dira

Ostirala, 2016.eko uztaileak 1

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak uztaileko bigarren hamabostaldian lankidetzaz hitzarmen bat izenpetuko dute EITBren zerbitzu guztiak (Euskal Irrati telebista) Nafarroan ikus-entzun ahal daitezen, TDT eta kable bidezko telebista nahiz irratia (FM eta transmisio digitala). Dokumentua bi gobernuak aste honetan bertan onartu dute.

Hitzarmenak ETB Nafarroa guztian ikusten utziko zuen irtenbide teknikoak jasotzen ditu, egungo multiplex autonomikoaren bidez, etorkizuneko bigarren multiplex baten bidez edo toki-eremuko TDT multiplex bidez, edo beste edozein aukera baliatuz, indarrean dagoen estatuko legeriak Foru Komunitateari emandako kanalen arabera edo ondoren onar daitezkeen etorkizuneko plan teknikoaren arabera. Alderdi tekniko horiek Nasertic enpresa publikoa (Navarra de Servicios y Tecnología) eta EITB erakunde publikoa amaitzen ari diren memoria tekniko batean adieraziko dira.

Hitzarmenak, gainera, ondorengo adierazten du: EITBk Nafarroako errealitate politiko, sozial eta instituzionala, ikurrak eta identitatea errespetatuko dituela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta bertako lurralde historikoetako errealitate bereizita aurkeztuko eta ordezkatzeko dela EITBko profesionalek idatzitako informazioetan eta haien aurkezpenetan. Halaber, sentsibilitate politiko eta ideologiko guztiak sartuko eta errespetatuko dira, iritzi publiko anitza osatzen laguntzeko xedearekin.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak eta udal askok Foru Gobernuari behin eta berriz egindako eskaerei erantzun zaie, hau da, ETB TDT bidez ikusteko aukera izatea.